Etxamendi, E

Dona-Zaharretik Ilbeltzaren 12. 1966

Jaun apez eta adixkidea,

Zure hitzak egin daut mila plazer. eta esker mila dauzkut bihotz-bihotzitik.

Ohoratzen nuzu sobera ene ateraldi pixkiñen aipatzean. Bozkario dut jakiteaz zure zerbaitetako baliatzen ahal dituzula.

Zerbeitxka banuen eginik azken egun hautan zuri igortzeko edo hola-hola ager-arazteko Goiztiri-ri edo...
Gaia: kondaira edo "roman" ttipixka gisa bat, bakarrik harri-pe guzietan oraino bizi diren arrainak, eta larriak! baditu. Eta ez baititut arrain-ausikiak hain maite, gogo nuen Iruñan berdin ager-arazi izen-goiti batekin... Orai tresnan joiten ari daut lan hori norbeitek.

Nahi bazindu kopia bat igor nezaukezu eskuratzen dutalarik berriz hihauek, bainan beldur niz ez dukezula dena ager-arazten ahalko. Dena-den nahiago dut, eta nahi-nahi dut ene izena gorde "roman" delako horrekin bederen zonbeit denboraz. Ez dut neure ustez kalte egitekotan egina, den bezala; bainan irakurtzeko-arazteko, eta bereziki jende-xehe gaixoa sobera aise diona bere Ameriketako semez eta Parisko alabez « baa, untsa dienaz gañ beharrena baixie, eztea hala? »

Hunarzkitzu otoi, adixkide jauna, ene esker eta agurrik minenak bihotz-bihotzitik igorririk.

Etxamendi

"Frantses-enia"
St Jean le Vieux

Izpuratik. Urriaren 31. 1966

Jaun apez eta adixkide maitea,

Eskerrmila ainitz zure ondarreko eskuthitzaz.

Huna, "zorionez" eri bainiz ohean, idazteko aizina badut hola, eta hemen igortzen dauzut artikuluska bat.

Nahi duzun bezala edo ahal duzun bezala motzazu.

Beste ttipiagoko bat ere badut igorri gogokoa, delako "Urtzoak uorian aldatu"!.. kondairaren segida, bainan ez kondaira oraikoan: Garazin errebòluzionea dugu auzi hortaz, haatik "bazterrek" erran nahi baita "haundiek" putza-tinki atxiki dute orai artio kasetetan barreatzerat deus utzi gabe.

Agur bihotz-bihotzetik.

E. Ithurrart.

Etxamendi, Eñaut

Izpurako ospitaletik Azaroaren 4 - 1966

Adixkide maite apez ta jauna,

Huna hemen artiku bat proxino bat bolbor'usainarekilan... Bainan ez dut buru-ukaldiz egina (burua mitsa dut, zangotzar hau berdin banu!).

Otoi agertarazazu inahala laster, aintzinean "Laborantxako Eskolez"; gorria baino lehen.

Gertakarri hauk dira, duela 2 ilabete egin nauzun "Urtzoak urrian aldatu" kondaira haren jarraipena eta... "helburua".

Iduritukko du beharbada "tenorea gaixtoa dela" — elekzione denbora delakotz —, edo "holako edo halako jaunak ez duela holako sudurrekorik merexi"...

Bainan batean hau dela, bestean hura dela... ixilik egon ohi gira Eskual-Herri maitean, biziki aunitxe, eta IXILTASUNA Erregina jende-jalea eta zori-gaitz askoren iturria da bai gure lurraldean bai mundu zabalean.

Hemen jendea aspaldian kexatzen ari zen, bainan badakizu jauna nola giren Eskualdunak : ezin mentura -

Berdenboran artikulu hunek lagunt ahal baleza Garaziko Sindikata iratzartzen eta berritzen, lan huna eginik balitaike - Badira halaadere lan-gai handiak Sindikatarentako, eta orai artean salts'urdinkeria eta kixkilkerian johaki astia -

Aintzinetik eskermilarik minenak igorriz, otoi barka ene ausartzia, eta har ene errespetu eta adixkidantzarik beroenak -

Eñaut Etchamendy

---

P.S. Azken otoitz bat : inprimeriako bastak otoi ikert edo ikertarazkitzu : hitz baten edo elabide baten makurtzeak ene errangura makurt bailezake biziki. (Aintzineko artikuluetan noizean behin gertatu da bainan gutti, eta munta ttipia zuen - Huntan ez da berdin eta Michel Inchausperen koñata izanki inprimerian... Jaun haundi horren haurkeriak edo... baitira hemen tirokatuak)
Milesker bihotz-bihotzetik -

Eñaut Etchamendy
"Obilon"
Beyrie sur Joyeuse 64

Otsailaren 9. 1968

—

LAFFITTE Jaun Kalonjea
UZTARITZE

—

Adixkide jauna,

Urte on baten agintzeko orai berantegi ... bainan zerbitzu eskatzeko beti tenore! aikilan hola da zorigaitzez, arras basa bainago urteen-gatik. Guzien gatik ene agintzarik hoberenak aurtengo ere, bihotz-bihotzez igortzen derauzkitzut. Bai osagarri eta bizi bahios hossen ukzaun, bai Jaunaren gurikako grazia berook.

Bihotzian xarraxta batekin oharta nintzan kazetaren burua uzten zinduela, zure letra ona ere ukan bere tenorean eta eskermilak derauzkitzut. Zure ondokoa edo ondokoak untsa moldatu dituzu, Herria orai inguru-hotako astekaririk pollitena da eta beti berdin maitagarri!

Heldu mintzauzqun AGUIRRE-sariaz. Bi Aguirre horien artian galdua niz - "Eleberri"-saria zoinena da? Orai tenore nuke naski sekul'itekoz ene idazkin pixkilaren erakusteko (maiatzian balinbada jujatzia holetan). Otoi zuzenbide xuxena jakinaraziko dautazuia? Aintzinetik eskerrik gogoaren barne-barnetik.

Geroztik eztut fitsik idatzi, kantu banaka zonbait egin bakarrik. Egi'erteko gaitzeko haamarrak igaanik eta igaaiten baditugu: ettaldea erosirik, han 3200 m² berotegi eginik... heriotziaz beraz kanpo, beste oiñazeak oso nabariturik egonak gira. Hamar aldiz ororen kebratzeko kinkan... Orai (6 ilabete dituzu hatzik) guhaun diruz ari gira muntatzen. Lehen errekoltatik atera dugu garbi 1,5 M (ixo! ez erran nehori). Bigarrena martxoko - 3garrena maiatzeko ahal balinbadugu.

Orduan atekatik igaanak izain gira eta beste liburu bat eginen dut pausatzeko.

Agur jaun maitea, izan beti bizkor, Jinkuak beira zazkigula luzaz gure Lafitte jauna.

Eñaut Etchamendy